



BETERRIKO ALDIZKARIA



# AIURRI

1995eko abenduaren 1a. 25. zenbakia. Dohain banatzen da.



## Bigarren urtearen ateetan



BETERRIKO ALDIZKARIA




# AIURRI

## UDALEN BABES ETA

LAGUNTZAREKIN

M. LARRAMENDI KULTUR  
BAZKUNAK ARGITARATZEN DU



# Aurkibidea

1. **AURKIBIDEA.**  
**AIURRITARRAK**  
J.A. Rodríguez: Konstituzioaren eguna dela-eta.
2. **INKESTA.**  
Eta zu, herri juraduetan parte hartzearen aldeko al zara?
3. **LARRAUL.**  
Larraulgo Aita Bernabe.  
Gaztaina eta talo jana.
- 4-5. **ANDOAIN.**  
Ur partzuergoa zertan den.  
I. Agirrerren "Andoaingo artzain eraikinak".
6. **ASTEASU.**  
Behobia-Donostia lasterketa.
7. **BILLABONA-AMASA.**  
Zuzeneko kontratazioak.
8. **ZIZURKIL.**  
Baiezkoa Senideak-en moziari.
9. **BASERRIA**  
Udazkeneko lehenengo gaztainak, Agerrekoak.
- 10-13. **ERREPORTAIA.**  
Etxez etxeko inkesta.
14. **ERRETRATU ZAHARRA.**  
Soarrain auzoko eskola Larraulen. 1959-60.
15. **ZE BERRI? / LEHIAKETA.**
16. **AGENDA.**

**Argitaratzailea:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31  
**Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.  
**Erredakzioa:** Antxiñe Mendizabal eta Ainhoa Oizartzabal  
**Argazkiak:** Manu Mujika **Komikia:** Iñaki G. Erro.  
**Publizitate arduraduna:** Mailu Ibarbia. **Banaketa arduraduna:** Iñosen Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oriati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Legedordailua:** SS-202/94 ISSN: 1134-0614  
**Tirada:** 3.500 ale.

**OHARRA:** Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



# Aiurritarrak

## KONSTITUZIOAREN EGUNA DELA-ETA



J. A. RODRIGUEZ  
"TXIKI"

Laster hemen dugu abenduaren 6a, hau da, Espainiako konstituzioa onartu zeneko 17. urteurrena. Eta aurten, asteazkenarekin bat datorrenez, eta abenduaren 8a ere -Ama Sortzez Garbiaren Eguna-, ostirala, jai denez, hau "paotxa", bost eguneko "makrozubia".

Aukera ezin hobea norabaitera joateko, pentsatuko dute batzuek. Eta hor ditugu bidaia agentziak jo eta ke beren eskaintza ezin hobekak lau haizetara zabalduz: *Hau bai zubia! Zubi eder bat!* Eurodisney, Amsterdam, Viena, Venezia, Praga..., gure zain, bai, aiurritarren zain! omen ditugu.

Eta izango da konstituzioaren urtemuga egun horretan, nahita eta konstzienteki jai egingo ez duenik ere. *Hori ez da gure konstituzioa! Euskaldunek ez genuen konstituzio hori onartu! Beraz, zergatik ospatu? Zergatik jai egin?*

Bai, egia da, EAEn 10tik 3k besterik ez baitzuen konstituzio honen aldeko botorik eman. Eta Beterrin, zer esanik ez; gure eskualdean 4tik 1ek bakarrik bozkatu zuen "bai", -eta erne, gure artean ere herri guztietako emaitzak ez ziren berdinak izan: Andoainen hauteslegoaren %30ak eman zuen aldeko botoa; Larraulen aldiz, 155 hautesleren artean 3 besterik ez ziren konstituziozale agertu-.

Hala eta guztiz ere, ez gaitezen eztena baino zorrotza- goak izan. Kristau ez direnek ere ez al dute Ama Sortzez Garbiaren egunean jai egiten ala?

Gainera ez zait iruditzen gauregun, abertzaleentzat ere, konstituzio denik mamu beltz nagusia. Bai, noizbait herri honen askapen bidean Espainiako konstituzioa oztopo bilaka daiteke, baina zoritxarrez une horretatik urruti xamar gaudelakoan nago, bidean hasi orduko elkari hanka- trabak jartzen hasiak baikara.

1978ko abenduaren 6an etxean geratu nintzen, euskaldun eta beterritar gehienentzako antzera. Ez nion konstituzio- ari nere baiezkorik eman, beraz, datorren asteazkenean ere ez dut topa egiteko inongo arrazoirik. Baina, hori bai, ez dut lanera joateko asmorik ere. Eta zuek?



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamenduaren laguntza jaso du.

## ETA ZU, HERRI JURADUETAN PARTE HARTZEAREN ALDEKO AL ZARA?

Datorren martxotik aurrera hainbat eta hainbat auzitan herritarrek erabaki beharko dute akusatuaren errugabetasuna ala inozentzia. Ordenagailu bitartez zozketa egin ondoren ehundaka herritar aukeratu dituzte juraduak osatzeko. Arlo batzuetara dago, hala ere, herri juraduen parte hartzea mugatuta, hilketa kasuetan adibidez, ez dute parte

hartuko. Derrigorrezkoa da deituz gero, juraduetan parte hartzea. Isunak 25.000-50.000 pezeta bitartekoak izan daitezke. Bestalde, epaitegian eguna eman behar duen pertsonari 10.000 pezetako ordainsaria emango zaio. Epaiketetan gizartea ordezkatuta egotea eta iritzia ematea du helburutzat sistema berri honek. Zein da zure iritzia?

### CESAR RAMON, JUBILATUA. ANDOAIN.

Ez nekien ezer. Nire semea abokatu da eta ez diot gai horri buruz ezer aipatzen entzun. Dena den, neri ez litzaidake gustatuko; nik zer dakit, ba, pertsona bat gezurra ala egia esaten ari den. Abokatuentzat berez zaila baldin bada, are gehiago kaleko edonorentzat.

### JABIER MUJIKA, UDALTZAINA. ADUNA.

Ongi iruditzen zait herritarrek parte hartzea. Arazoa ordea, edozein herritar ardura hori hartzeko gai den ala ez argitzea da. Zozketa bitartez aukeratu beharrean, ikerketa baten ondoren aukeratu beharko lituzkete.

### EDU SÁNCHEZ, ETXEKOANDREA. ZIZURKIL.

Egokia iruditzen zait sistema berria. Ardura handia da eta beraz, hobe da herritarrek eta abokatuak elkarlanean aritzea. Positiboa da justiziarentzat abokatuaren jakinduriaraz gain, herritarren iritzia ere jasotzea. Nik gogo onez parte hartuko nuke.

### RAMON CORRIOL, JUBILATUA. BILLABONA.

Ongi iruditzen zait abokatu bezain gain, herritarrek ere auzietan parte hartzea. Jende arruntak parte hartu behar du auzietan, abokatuak poltsikoak betetzera bakarrik joaten baitira askotan. Ni gustora izango nintzateke juraduko partaide.

### MATI ALIJOSTES, LANGABETUA. ASTEASU.

Teorian ongi dago, baina partaideei prestaketa maila txiki bat gutxienez, eskatu beharko litzaieke. Askotan herritar xumeek, abokatuak eta epaileek baino erabaki bidezkoagoak har ditzakete. Izan ere, nahikoa ustelduta dago justizia, eta ezin gaitzke fida.

### SANTOS SÁEZ, JUBILATUA. ANDOAIN.

Nik uste dut jende prestatuak joan beharko lukeela: zuzenbidea ikasten ari diren ikasleak, adibidez. Hala ere, deituko balidate, joan egingo nintzateke. Jubilatuta nago eta ez daukat beste zerreginik.

**AIURRI** ALDIZKARIAK  
PUBLIZITATE ARDURADUNA  
BEHAR DU

INTERESATUEK DEI TELEFONO HONETARA:  
**30 07 32**

**PATXINE  
JATETXEA**



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL  
SUKALDARITZA ETA ETXeko POSTREAK  
Errementari,1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU



## LARRAULGO AITA BERNABE

### BERE BIZITZARI BURUZKO BI LIBURU IDATZI DITUZTE

Larraulen jaio zen mende honen hasieran, egun eroria dagoen Andrezketa baserrian. Umetan joan zen Zizurkilera bizitzera eta berehala kaputxino egin zen. Ekuadorren igaro zituen misiolari lanetan bere bizitzaren urte asko eta baita azkenekoak ere. Egun Ekuadorreko herri txiki batean dago ehortzita Aita Bernarbe eta santutzat dute bertakoek, Larraulgo herritarrek bezala.

Larraulen bataiatu zuten 1907. urtean eta jaunartzea ere bertan egin zuen. Ondoren Zizurkilera joan zen eta handik aurrera kaputxinoen Hondarrabiko egoitzean, Altsasukoan eta beste hainbat herritakoetan bizi izan zen. Izaera apaleko gizon jakintsua zela diote herritarrek.

#### MISIOLARI LANAK EKUADORREN

Urte asko igaro zituen Ekuadorreko herri txiki batean. Bertako elizari *San Miguel* izena jarri zion, Euskal Herriko santuaren omenez. Maiz idazten zien Larraulgo lagunei eta herria bisitatzera ere etorri izan zen duela hama-bi urte inguru.

1988an hil zen Aita Bernabe eta Larraulen bere omenezko meza berezia egin zuten. Kaputxino ugarik eman zuten aipaturiko meza. Handik gutxira Aita Bernaberi buruzko liburua idatzi zuen Rufino Maria Grández kaputxinoak. Orain dela gutxi idatzi berri du beste liburu bat idazle berak. Aita Bernarberen bizitza, bere idatziak, egini-ko lanak eta misiolari bezala burutu zituen ekimenak biltzen dira bi liburu horietan. Edonork eskuratu nahi izanez gero, Udalean edo parrokian eska ditzake.



## GAZTAINA ETA TALO JANA

### URTERO EGITEKO ASMOA DUTE

Ehun lagun baino gehiago bildu ziren azaroaren hirugarren igandean Larraulen. Herritarrek ziren guztiak, gaur egun bertan bizi direnak zein kanpoan bizi direnak. Herriko etxeoandreek eta amonek egin zituzten taloak eta herriko gazteenek berriz, gaztainak erre zituzten. Jo ta ke aritu ziren taloak egiten,

guztientzako nahikoa egin arte. Gaztainak, txistorra eta bestelakoak Udalak eskaini zituen taloak egiteko irina ordea, Txirringaingo errotatik ekarri zuten. Herritar askok hartu zuten parte antolakuntzan eta datozen urteetan, data berean, berriro egiteko asmoa daukate. Arratsalde polita igaro zuten taloak eta gaztainak jatera hurreratu zirenek, ilundu aurretik jatekorik gabe gelditu baziren ere.



Lan handia egin zuten herritar askok

**J. Antonio URBIETA**

- Garraioak: 16m. grua
- Urte osoan su egurra
- Bere garaian lastoa eta belarra

Kale Nagusia, 4 - 2. ASTEASU  
Tel. 69 30 92 - 69 26 76

**VAC VAC** **HOL - ATZ**  

VACSOL - W<sup>®</sup> TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

**OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA**

Elbarrena, z/g.  
PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN  
AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA  
69 30 63 - 69 07 34  
ADUNA



# Herriz herri

## Andoain


# UR PARTZUERGOA ZERTAN DEN

## 2001. URTERAKO ORIA IBAIA GARBI

Uraren prezio publikoak %10a egin du gora, gainera kontsumitzen den m<sup>3</sup>ko 19 pezeta ordaindu behar du andoaindarrak. Arrazoia, ur partzuergoan sartu izana dela adierazi dute Udal agintariek, hain zuzen ere, erakunde horrek Oria ibaian burutu behar dituen garbiketa lanak direla eta, igo da prezioa. Ur partzuergoa berez, Gipuzkoako herri gehientsuenen elkargoa da, eta 2001. urterako Europako legediak agintzen duenez, 15.000 biztanle baino gehiago daukaten herriek garbi eduki beharko dituzte euren ibaiak.

Garbiketa lanak behin-betikoak izango direla esaterik ez badago ere, oso epe luzerako izango dira. Eta horretarako dirutza handia eskatzen duten inbertsioak egin behar dira. Eusko Jaurilaritzak ordainduko du lanen %50a, Diputazioak %25a, eta Udalek beste %25a. Andoaini 4.400 milioitako inbertsioa dagokio: 2.000 milioi Leitizaran ibaiko kolektoreak jartzeko, 400 milioi Buruntza aldeko Ziako eta Errekabeltz errekaetakoak jartzeko, eta 2.000 milioi Lasarteko muga depuradora ezartzeko. Iaz herritarren zergen bitartez 20 milioi jasotzea zegokion Udalari, 26 milioi aurten eta 30 milioi 1996. urtean. Kopuru horietara egokitzeko igo dira prezio publikoak, eta aurrerantzean gora egingo duten ala ez aztertze dago.

Oria ibai osoa hiru alditan garbituko dela dago aurrikusita: lehenengo aldiak Tolosa bitarteko zatia hartuko du; To-



Oria ibai osoa garbituko dute

losa-Andoain izango da hurrengo tartea; eta Andoain-Lasarte azkena. Garbiketa lanak egin ondoren hiriko zabor guztiak kolektorean bilduko dira, eta erreka isuri aurretik depuradoretik igaroko dira. Proiektu erraldoi hau aurrera eramateko ezinbestekoa izango da 2001. urterako lantegietako ur zikinaren isurketa kontrolatua izatea.

### HODI LEHERKETAK

Beste aldaketa batzuen artean ibaia garbitu orduko herriaren sarreran kontadorea jarriko da herriak gastatzen duen ur kopurua ezagutzeko. Gaur egun herriko hodian egoera txarraren ondorioz iturrietara iritsi aurretik uraren %30a galdu egiten da. Data berbererako konpondu beharreko beste arazo bat dela adierazi digu Jose Antonio Pérez Gabarain alkateak. Eta bide batez, azken bolada honetan ugariak izan diren hodian leherkataren arazoak eman dizkigu: hodiak oso zaharkituta daude, eta gainera herrian hodian banaketa oso gaizki eginda dago. Hala-

ber, gas hodiak kokatzean zenbat hodi mailatu egin dira, eta ondoren puskatu. Azkenik, asteburuko kontsumo gutxitzeak, gehiegizko presioa sortzen omen du hodietan, eta ondorioz, leher-tu egiten dira. Dena dela, arazoak irtenbide zaila daukala adierazi digu, inbertsio handia eskatzen baitute lanek.

## MARIA LUISA IRIZAR ZAZPIGARREN ALDIZ GARAILE

XXXI. Behobia-Donos-tia lasterketan, parte hartu zuten 9.000 korrikalarien artean, beste behin nabarmendu zen Maria Luisa Irizar korrikalari andoaindarra. Zazpi-garren aldiz bereganatu du aurten emakumeen artean lehen postua.

Aurtengo edizioan, besteak beste, Alberto Juzgadak ezarritako marka berria azpimarratu behar da: 59 minutu eta 42 segundutan lortu zuten 19 kilometroak korrika egitea.



## Zabala Ordukari Bitxitegia

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN  
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI



## I. AGIRREAREN "ANDOAINGO ARTZAIN ERAIKINAK"

BALITEKE "ANDOAINGO PAPERAK" BILDUMAKO AZKEN ARGITALPENA IZATEA

Gaur egun bizirik dirauten Andoaingo artzain eraikinen ezaugarriak bildu ditu Iñaki Agirrek zehatz-mehatz argitaratu berri den lanean. Aurkezpen egunean Aranzadi Zientzia Elkarteko etnografia saileko arduradun den Fermin Leizaola, "Andoaingo Paperak" argitalpenen sustatzaile izandako Juanjo Larrea, Udaleko Kultura batzordeburua Garbiñe Egibar eta Iñaki Agirre egilea bera izan ziren. Udal arduradunak esandakoak adierazten du bestalde, posible dela zazpigarren argitalpen hau azkena izatea.

Lehenengo eta behin, Fermin Leizaolak Euskal Herriko artzain borda eta txabolen xehetasunak eman zituen ezagutzera, eraikinak ugariak eta oso anitzak direla adieraziz. Artzain bordak bestelako jauregi, eliza edo zubien mailako ondasunak ez baldin badira ere, katalogatzea eta informazioa ezagutzera ematea zein garrantzitsua den azpimarratu zuen.

Iñaki Agirrek orain dela zortzi urte ekin zion lanari. Geroztik landa ikerketa zabala egin du. Eta bidean ezagutu dituen krisialdiak eta lanaren zabalatasunari berari dagozkion arazoak gainditu ondoren, zehatz-mehatz katalogatuta eman ditu ezagutzera Andoaingo bordak eta txabolak. Bordaren kokalekua, bertaratzeko informazioa, deskribapena, egoera eta beste hainbat xehetasun agertzen dira bertan.

Berandu baino lehen egin beharreko lana zela aitortu du: "Hobe da orain eta gaizki, gero eta ezerrez baino" esan zuen. Izan ere toponimia arloan egin berria den herriko bilketa izan ezik, arlo horretan hutsune handia dagoela adierazi du, eta ahozko tradizioa, bestalde, ia erabat galduta dagoela.

Leitzaran aldeko borda guztiak ezaugarri beretsuak dituzte: ezaugarrien artean nabarmenena sinpletasuna bera da, ia landu gabeko harriz, eustorerik gabe eta egur egitura arruntez

eraikiak. Behin-behineko eraikuntzak dirudite gehienak. Adarra ingurukoak berriz, beste xehetasun batzuk erakusten dituzte: teilaz estalita daude eta egurra eta harria landuagoak daude.

### JUANJO LARREARI ESKAINIA

La Salle ikastetxeko irakasle izandako Juanjo Larreari eskainita dago liburua. Hain zuzen ere, Larrea izan bai-

ta, besteak beste, "Andoaingo Paperak" bildumaren eragile eta sustatzaile. Larreak bildumaren hasierako asmoak eta helburuak aipatu zituen: 50 gai inguru aukeratu zituzten hasieran, eta era laburrean Andoaingo ikasleei ezagutzera emateko lanak argitaratu nahi zituzten. Hasierako helburutik desbideratu, eta argitalpenak gora-behera ugari ezaugu ditu.

Udaleko Kultura arduraduna den Garbiñe Egibarrek ere ez zuen bildumaren etorkizuna erabat zehaztu. "Bildumak bere udaberria ezagutu zuen, eta udazkenera iritsita gaude" esanez, aurrerantzako argitalpenen ziurtasun eza eman zuen aditzera.



Diapositibetan jaso ditu borda eta txabola askoren irudiak

### EAJ-PNVREN DEIA:

Andoaingo Eusko Alderdi Jeltzaleko kideak Olentzero egunean abesten irtengo dira herriko kaleetan barrena. Kantuan egiteko asmoa eta gogoia duen guztia hurbil daiteke batzokira ostegunero arratsaldeko zortzietan izaten diren en-tseiuetara.

### ODOL EMAILEEN OHARRA

Odol emaien elkarteak jakinarazi digu abenduaren 12an izango direla Andoian-go osasun zentruan arratsaldeko 18.30etatik 20.30etara.

**S T O P**  
**LIBURUDENDA**

TESTU LIBURUAK  
AUKERA ZABALA LIBURUTAN  
(Ingelesezt, frantsesezt,  
italieraz...)

Agustin de Leiza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03



**ANOETA**  
**GARAGEA**

**BASO, NEKAZAL ETA LORA ZAINZA TREKNAK**

**BASO - LUR S. L.**

B-20520136

Autobia Gasteiz Donostia Tel.: eta Fax. (943) 69 04 02  
20270 I R U R A (Gipuzkoa)



## BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETA

### HERRITAR UGARIK HARTU DUTE PARTE

Jose Migel Irazu asteasuarak irabazi izan du lasterketa bat baino gehiago 1979. urtean Behobia-Donostia lasterketa antolatu zenetik, eta haren urratsei jarraitu nahian edo, hamaika herritar inguru atera dira aurten lasterketan.

Bederatzi mila korrikalari baino gehiagok hartu dute parte 20km-ko lasterketan. Herriko korrikalariak, indarrak berreskuratzeko edo, bazkaria egin zuten lasterketa bukatu ondoren.

Askok, lasterketa horretan ateratzeko soilik entrenatzen dute, beste askok ordea, egunero entrenatu ohi dute. Lasterketan bakoitzak bere buruari jarri dion helburua lortzeko edota lagun artean eginiko apostua betetzeko egiten da korrika. Behin jaiak bukatuta hasten da jendea lasterketarako presatzen eta lehen aldian, ondo neurtu behar dira indarrak, izan ere 20km-tako lasterketa ez da txantxa.

#### HERRITARRAK KORRIKA

Hamaika asteasuar inguru atera dira lasterketan, horien artean emaku-



**Koldo Irazu larrauldarra**

mezko bat. Egin duten denbora batez besteko ordu t'erdikoa izan da eta eurek dioten bezala "denbora jakin bat lortzera joan gabe, lasai-lasai joanez gero, nahikoa erraza da. Hori bai, aurretik entrenatu egin behar da".

Behin lasterketa bukatuta, bazkaria egin zuten berrogeita hamar lagun inguruk. Duela pare bat urte hasi ziren lasterketan ateratako korrikalarien artean eta beraien lagun artean bazkalitzen eginiko sakrifizioa saritzeko asmotan.

### KOLDO IRAZU.

**8. POSTUA LASTERKETAN HOGEITA ZAZPI URTE; LARRAULDARRA; IRAKASLEA.**

**- Zenbateko denbora egin duzu?**

- Ordubete, 3 minutu eta 4 segundutan iritsi naiz helmugara, nire markarik hobereana lortu dut. Lasterketan 8. postua lortu dut baina hori ez da garrantzitsua, etortzen den jendearen arabera postu ezberdina lortzen baita. Garrantzitsua, egiten duzun denbora aurrekoa baino hobea izatea da.

**- Lasterketa bonetan bakarrik parte hartzen al duzu?**

- Ez, urte guztian entrenatzen dut eta hamarren bat lasterketan ateratzen naiz urtero. Halere, gehien gustatzen zaidan lasterketa Behobia-Donostia da; giroa oso herrikoa da.

**- Lehenengo postua lortu al duzu noizbait?**

- Bai, lehenengoa ez bada ere bigarrena edo hirugarrena ailegatu izan naiz. Behobia-Donostia lasterketan ordea oso zaila da lehenengo postua lortzea, maila handiko korrikalariak etortzen baitira.

**- Afizioz egiten al duzu korrika?**

- Bai noski, korrika egitea atsegin dut eta borregatik hartzen dut parte lasterketan, ez dut bestelako asmorik.

**fotocolor**  
ERREBELATUA ORDU | EAN

**Ezkontza, Jaunartze, e.a. en erreportaiak.  
Lan Industrialak**



Jose Ignacio Unanue  
Juan Bta. Erro 1 - ☎ 59 43 32  
20.140 ANDOAIN





## ZUZENEKO KONTRATAZIOAK

### HBK ETA UDAL LANGILEEK ERREKURTSOAK EGINGO DITUZTE

Urriaren hemeretziaren egun zen Gobernu Batzordean udaletxeko hiru langileei behin-betiko kontratazioak egitea erabaki zuten. Langile horiek behin-behineko kontratuarekin ari ziren lanean eta EAJ-PNV eta Bidean alderdien proposamena izan zen egoera hori erregulatzea, lanpostu horiek betetzeko. Udaleko idazkariak ohartu zituen kontratazio mota horiek ez zirela legezkoak eta langile komiteak zein asanbladak, kontratu mota horien berri bezperan jakin zutela salatu zuten. Herri Batasunak berriz, "entxufismoa" salatu zuen, Udalbatzak onartu gabeko oinarrien araberrako kontratazioak omen dira eta.

Duela urtebete inguru bi langile kontratatu zituzten gizarte zerbitzurako: orduko gizarte laguntzaileari laguntzeko langile bat eta bertako administrari lanak betetzeko beste bat. Lehiaketan gizarte zerbitzurako zuten ekimena erakustea soilik eskatzen zieten lanpostura aurkezten ziren gizarte laguntzaileei. Epaimahaikide ziren HB eta EAJ-PNVko zinegotziak oinarriak eztabaidagai zituzten bilera batetik atera egin ziren langileen ordezkaria eta Diputazioako teknikariarekin batera.

HBk kontentzioso administratiboa jarri zien epaimahairen erabakiei, epaimahaiko oinarriak ez baitzuten Udaleko euskara arautegia betetzen eta gi-

zarte laguntzailearen kontratazioa irregulartasun handiz eman zelako. Sententziaren zain dago kontentziosoa.

#### ORAINGO EGOERA

EAJ-PNV eta Bidean alderdiek proposatzen dute urtebeteko kontratuarekin zeuden bi langile horiei behin-betiko kontratuak egitea. Bidean-ek dionez, zuzeneko kontratazioa egitea apostu politikoa da. Diotenez, urtebetean zehar lanpostu hori betetzeko pertsona egokia dela erakutsi baitu. Politika hori jarraituko dutela diote: "Profesionaltasunari ematen diogu lehentasuna eta euskararen ezagupena baloratu egingo dugu" diote Bidean-ekoek, gizarte zerbitzuan euskara ziurtatuta dagoela gaineratuz. Lau urteko epea emango zaio euskara ikasteko.

HBk aldiz, legea bi puntutan ez dela betetzen dio: ez dute ez deialdi publikorik egin eta ez dute Udaleko euskara arautegia bete. Berrito ere epaitegietara joko dutela diote eta alkatearen eta Ongizate batzordeburu den Jose Luis Arnaezen dimisioa eskatzeaz gain, EAJ-PNVren politika partidista salatzen dute iazko oinarriak onartu ez eta orain kontratazio mota horiek bultzatzen baitituzte. Azkenik, udaletxeko langileek ere lanpostu horien deialdi publikoa egitea, euskaren arautegia betetzea eta finen, langile komitearen iritzia kontuan izatea eskatzen dute. Kontratu horiek eta duela urtebetekoak irregulartasunez egin direla diote eta aurrerantzean legea eta arautegia betetzea nahi dute.

Billabona-Amasa

### SARTU EGITASMOKO IKASTAROAK

#### EGURRA LANTZEKO TORNULARIA

450 orduko ikastaroa. Urtarrilean hasi zen eta datorren urteko apirilaren 24ean bukatutako da. Izena abenduaren 22a baino lehen eman behar da.

#### ALTZARIEN MARGOLARI-DEKORATZAILEA

Ikastaroak 450 orduko iraupena du. Datorren urteko urtarrilaren 11an hasi eta apirilaren azken egunean amaituko da. Abenduaren 11tik aurrera eman daiteke ikastaroan izena, urtarrilaren 4ra bitartean.

## URPA AUTOBUSAK



**KALITATEA  
ETA  
SEGURTASUNA  
ZURE  
ZERBITZURA!!**

**Sorabilla Auzoa, 53. Pol.**

☎ (943) 59 38 05

Fax (943) 30 01 06

Autobusak. (908) 17 18 92

Mobilak (908) 77 20 43

**ANDOAIN  
GIPUZKOA**



## BAIEZKOA SENIDEAK-EN MOZIOARI

### EAJ-PNVEK AURKEZTU ZUEN MOZIOA ERRETIRATU ZUTEN

Udaleko zinegotzi guztiek baiezkoa eman zioten Senideak-ek Udaltzanean aurkeztutako mozioari. PSEeko zinegotziak berriz, lehenengo bi puntuak bakarrik onartu zituen. Tentsio uneak bizi izan ziren EAJ-PNV alderdiak bere mozioa aurkeztu zenean. Azkenean, erretiratu egin zuen.

Euskal preso politikoak Euskal Herrira ekartzea eta dagokien preso-en baldintzapeko askatasuna eskatzea dira besteak beste Udaltzarak onartu zituen puntuak. Senideak-ek esan zuenez, pozgarria da erabakia baina hori praktikan jartzea eskatzen dute. Ondoren, EAJ-PNVk beste mozio bat aurkezteko asmoa adierazi zuen, baina Senideak-ek zein Udaltzanean zeuden herritarrek probokaziotzat jo zuten mozio hori aurkeztea aurrekoa onartu eta gero. Presoak politikoki ez erabiltzea eta ETArri zein ENAMi indarkeriazko ekintzak ez egitea eskatzen zuen mozioak besteak beste. Azkenean, EAJ-PNVri mozioa erretiratzea eskatu zitzaion eta honek, atzera bota zuen. Mozioa beste Udaltzanean batean aurkezteko aukera dago oraindik.



Herritar asko izan zen Udaltzanean

## EUSKALTEGIRA LAN ORDUZ KANPO

### EUSKARA MAILA GAINDITU EZ DUTENAK BAKARRIK JOANGO DIRA LAN ORDUETAN

Udaleko euskara arategiaren arabera, hirugarren mailako ezagupena edo perfila izan behar dute Udaltzanean langileek. Maila hori lortzeko Udaltzanean euskaltegira lan orduetan joatea eta matrikulak ordaintzea eskaintzen die langileei. Hala ere, maila gaindituta zuten langileak ere ibili dira orain arte euskaltegian, euskara maila hobetu asmoz. Orain, maila gainditu gabekoei soilik dute eskubidea.

Udaleko egoera ekonomikoa larria delako ukatu zaie hirugarren maila gaindituta duten langileei lan orduetan euskaltegira joatea. Hala ere, lan ordutegia malgua dute euskaltegira joan nahi dutenek, erraz-

tasunak emanez. Gainera, matrikula ordaintzen zaie langile horiei, Udaltzanean langileak euskaltegira bidaltzeagatik jasotzen duen dirulaguntzaren bitartez.

### LANGILE ASANBLADA EZ DAGO ADOS

Langileek diotenez, Udaltzanean langile batzuei euskaltegira lan orduetan joatea debekatu die eta beraiei, ez zaie erabaki horren arrazoirik azaldu. Bestalde, ikastaro hasieran euskaltegira joateko eskaini ziren baldintzak mantentzea eskatzen dute, datorren urtean guztien adostasunez erabaki finkoa hartu arte. Langileek azaldu digutenez, langile batzuk aurtengo euskaltegiko klaseetara joaten ari ziren erabaki berria helarazi zitzaion arte.

## DV-ETB PILOTA TORNEOA

Abenduaren 6an eguerdiko 12etan Zizurkil goian honako pilota saioak izango dira: lehenengo mailako afizionatu saioan Urretabizkaia anaiek Arbizu eta Inurrategi bikotearen aurka jokatuko dute; ondoren gaztetxo txanda izango da: Berasalazu VIII. eta Albizuri bikotea, Matxain eta Jaio bikotearen aurka.

### ARANBURU

agentzia

Aseguruak - Aholkularitza

PROFESIONALITASUNA NAGUSI

Kaleberria, 26 behea  
59 08 14  
ANDOAIN

winterthur

**ASTEASU**

## UDAZKENEKO LEHENENGO GAZTAINAK, AGERREKOAK

**URRIAN ZEHAR ASTEAZKENERO JOATEN DIRA ORDIZIAKO AZOKARA**

Agerre Beheko Mikaela Kortajarena eta Juan Legarra asteazkenero joaten dira Ordiziako azokara gaztainak saltzera. Berezitasuna ordea, gaztainak urrian zehar saltzean datza, are gehiago beste gaztaina saltzailak azokara joaten hasten direnerako, asteasuarrak otarra hutsik itzultzen dira etxera. Goizeko gaztainak izaten dituzte Asteasukoe; goizekoak eta urrutikoak, gainera, jatorriz japoniarrak baitira.



*Agerreko  
Mikaela  
eta  
Juan*

Asteasukoen gaztaina alea handiagoa eta zabalagoa da, azal gogorragoa dauka, eta irailerako hasten da arbolatik erortzen. Pila ederra jasotzen dute orduan Agerrekoek: mila kilotik gora. Eta Ordiziara eramaten dituzte, artean beste gaztainik izaten ez denez, bezeroek gustora hartuko dituzten segurtasunez. Izan ere, hemengo gaztaina garaia azaroan eta abenduan egoten da bete-betean. Hortik aurrera zaila izaten da gaztaina kontserbatzea, eta

etxean zortzi egun baino gehiago izanez gero, zulatzen hasten da. Lorezale batzuek diotenez, gaztaina lur azpian sartuz bakarrik kontserba daiteke nahiko modu onean.

Bestalde, Euskal Herrian azkenengo urteetan, Nafarroan izan ezik, ez dago gaztaina asko. Galiziatik ekartzen da gehientsuena. Horregatik askok sinetsi ere ez dute sinesten Agerrekoa Euskal Herrian hazitako gaztaina denik, kanpokoa eta tratatua ekar-

tzen dutela uste dute askok ale handi horiek ikusita. Landare exotikoa Juanen aitak lortu zuen orain dela 55 urte Diputazioan, eta geroztik hamarnaka gaztainondo hazi dira Agerre baserriaren goialdean, paraje paregabearen.

### **OHITURARI EUTSIZ**

Tolosako azokara ere joaten ziren lehen. Urteek aurrera egin ahala konturatu dira ordea, Ordizian estima handiagoan daukatela beren gaztaina, ziur asko, Goierri aldean ez dagoelako Tolosa aldean bezainbesteko gaztainik. Mikaelak eta Juanek gogoko dute azokara joan eta asteazkenero joan-etorria egitea. Askok ezagutzen dituzte senar-emazteak gainera, azokan beti lehenengoak izateagatik, eta ohitura horri aurrerantzean ere eutsi egin nahi diote.

Garai batean euskaldun askoren oinarritzko elikagaia ziren gaztainak taloarekin eta esnearekin batera. Gaur egun kaloriak direla eta ez direla, batek baino gehiagok egiten die muzin. Hala ere, garaia iritsitakoan, guztiok egoten gara normalean neguaren usaina dakarten gaztainak dastatzeko gogoz. Gaur egun bestalde, sukaldari modernoek erabiltzen dituzte gaztainak edozein eratako jakien osagarri: okelaren betegarri, esate baterako.

## AZKAIN MOTOAK



**MOTUL FERODO NZI CASTROL DAINESSE AGV**

**HONDA YAMAHA KAWASAKI SUZUKI**

• **MOTORRETARAKO AKZESORIOAK**  
• **NEUMATIKOAK** • **MOTORE AZTERKETAK**  
• **GARBIKETA** • **BILKETA SERBITZUA**

UBILLUTS AUZUNEA - 56.POLIGONOA - 12 zenb ☎59 14 13 ANDOAIN

## ETXEZ ETXEKO INKESTA

### AIURRI ALDIZKARIAK URTE T'ERDI BETE ONDOREN ETXEZ ETXE EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK

Uztail inguruan AIURRIk urte t'erdi bete berri zuela, eta uda aurretik, aurrerantzako asmoen irizpideak zuzentasunez ezarri nahian, gure harpidedun eta irakurleen artean inkesta egitea bururatu zitzaigun. Egun haietan aldaketa nabariak burutu berri genituen: hilabetekaria, hamakoskari bihurtuta; atal berriak buruan geneuzkala, orrialde kopurua zehaztu beharra, maketaren itxura aldaketa, publizitatean estilo berria bilatu nahia, eta beste hainbat eta hainbat aldaketa txiki eta handi. Ordura arteko jende aurreko lanaren onspena neurtu nahiak eraman gintuen inkesta burutzera.

Horretarako galdetegi luzea prestatu eta 100 harpidedunengana jo genuen erantzun bila. Horrenbeste iritzi artean bila ari ginen erantzunak aurkituko genituela pentsatu genuen, eta baita aurkitu ere. Galdetegiak era guztietako galderak biltzen zituen: informazio alorra, aldizkariaren itxura, publizitatea eta baita banaketa sistema ere. Herritarrek eman dizkiguten erantzunei esker, bada, gure asmo batzuk berretsi ditugu, ezusteren batzuk ere jaso ditugu, eta zalantzarik gabe, aurrerantzean, eta urte berriari begira egin nahi ditugun aldaketen bidea erakutsi digute.

Iñosen Mujika eta Ixiar Erasun andoindarrak, soziologiako ikasleak, burutu zuten inkesta uztailan zehar, eta beraiek ondorioztatu dituzte beharrezkoak genituen erantzunak eta emaitzak. Inkesta egiteko ehun harpidedun nahikoa izango zirela pentsatu zuten, gure zerrendan lehenengo ehun harpidedunak aukeratu zituzten, hain zuzen ere. Herri bakotzeko kopurua proportzioan banatu ondoren, sexuaren eta adinaren arabera banaketa egin zuten, emakumezkoak nahiz gizonezkoak, gazteak nahiz edadekoak neurri berean

ordezkatuta egon zitezen. Hala nola kaletarrak eta baserritarak portzentaia beretsuan egon zitezen saiatu ginen. 46 andoindarrek, 23 billabonatarrek, 13 zizurkildarrek, 11 asteasuarrek, 4 adunarrek eta 3 larrauldarrek erantzun diote gure galdetegiari.

Telefonoz deitu zitzaaien aukeratuei elkartzeko eguna eta ordua zehazteko. Telefonoz eman zitzaaien gure asmoen berri, eta handik egun batzuetara galdetegia etxean utzi zitzaaien batzuei, baina orokorrean Iñosenen eta Ixiarren galderari aurre erantzunez bete ziren galdete-

giak. Kontatu digutenez harrera ezin hobeia izan zen ia beti; beti. Hasieran harritu samarrak irekitzen omen zituzten etxeko ateak, baina handik pixka batera kafea hartuz ordubeteko solasaldiari ekiten zioten. Batzuk horrenbeste galdetu beharrak eta jakin nahiak aspertu ere egin omen zituen, baina orokorrean fin-fin erantzun zieten galdera guztiei, motz samar hasieran eta luze eta zabal azkenean. Bide batez gure bi andoindarrek Beterriko txoko ezkutuak ere ezagutzeko aukera izan dutela aipatu beharra dago. Ibilaldiak, beraz, alferrikakoak izan direnik ezin inola ere esan.

#### ONDORIO OROKORRAK

Zehaztapen gehiago eman aurretik inkesta aztertu ondorengo ondorio orokor batzuk aurreratu nahiko genituzke: oro har, AIURRIri buruz iritzi ona eta oso ona daukate irakurleek; beste egunkarietan herrietako albisteen eta batez ere, euskaraz landutakoen gabezia aipatu digute; AIURRIri dagokionez, askok uztailan, artean, ez zeuden hamaboskaria jasotzen oso ohituta eta hilabetekaria zeukaten gogoan, nahiz eta hamaboskariaren maiztasun berriaren aldekoak izan; aipatzekoa da Larraul, Aduna eta Asteasu bezalako herri txikietan herri handiangoetan baino harrera beroagoa izan duela AIURRIk,




Iñosen Mujika eta Ixiar Erasun

lehendik ere komunikabide gabezia nabariagoa baitzen, aldi berean eskakizunak egitean beste inor baino zorrotzagoak ere badirela esan behar da, eta bestalde, nabaria izan da Billabonako herritarrek agertu duten, txarra ez izan arren, beste herritarrek baino balorazio baxuagoa; atalei dagokienez, inongo zalantzarik gabe, *Herriz herri* atalari erreparatzen diote herritarrek gehienbat, nork bere herriko albisteei alegia, beti ere hurbileko albisteak eta pertsonaiak gogokoagoak baititu.

## HERRI TXIKIETAN HARRERA BEROAGOA EGIN ZAIO AIURRIRI

### HILABETEKARIA-HAMABOSKARIA

AIURRIren irakurleak aldizkariak zuten iritzi orokorra jasotzea zen lehenengo eta behin gure helburua, gustoko zuten ala ez jakitea, alegia. Galdetutakoen %83ak dauka aldizkariari buruz iritzi ona edo oso ona. %18ak nahiko ona dela pentsatzen du, eta %1ak baino ez du pentsatzen kaskarra dela. Hilabetekariari buruz zein hamaboskariari buruz gure irakurleek zeukaten iritzia jasotzea zen bestalde, gure kezken artean nagusienetakoa, aldaketa arlo askotan handia eta pisuzkoa izan baita. Hona hemen herriz herri jasotako erantzunak:



Hilabetekariaren aldeko arrazoiak, oro har, arrazoi bakarrera mugatzen dira: hilabetekaria aldizkari mardulagoa zen eta informazio gehiago zeukan irakurtzeko. Hala ere, hamaboskariaren aldeko arrazoiak ere jaso ditugu. Askok pentsatzen dute hamabost egunetako maiztasuna egokiagoa dela eta orain eskaintzen den albisteen berritasunak merezi duela.

### ATAL BERRIAK

Aldizkariari atal berririk gehituko ote lioketen galde-tu diegu hautatuei. Gehienak nahikoa ados agertu dira gaur egungo atalekin. 33 lagunek baino ez digute erantzunen bat eman: batzuek denborapasa atala iradoki digute, beste batzuek irakurleek parte hartzeko atalen bat,

herriko talde eta ekimenei jaramon handiagoa egin beharko geniokela esan digu besteren batek, jaiak ere aipatu dizkigute, eta azkenik, nork bere zaletasunei buruzko atala nahiko luke: ingurugiroa, ekonomia, kirol gehiago...

## EUSKARA ULERTERREZA, ARINA ETA ATSEGINA

AIURRIk erabiltzen duen idazkeraz irakurleek zer nolako iritzia daukaten ezagutzea oso premiazkoa izan da guretzat hasieratik, eta galdetutako guztiak gauza bera erantzun izana pozgarria izan zaigu benetan: guztiak erantzun dute erabiltzen dugun euskara ulerterreza, arina eta atsegina dela. Horrez gain, etxe bakoitzean AIURRIk irakurle bat baino gehiago daukala jakin dugu, izan ere harpidedunaz gain, gutunontzitik jaso orduko etxe-ko gehientsuenek irakurtzen dute AIURRI. Ez diote gainera, gainbegirada soil-soilik ematen, guztiak irakurtzen dute mutur batetik bestera. Hala ere, osorik irakurri arren, beti izaten da besteen aurretik irakurtzen den atala: irakurleek zein dute atalik gustokoena?

### ATALIK GUSTOKOENA

Atal batzuk derrigorrezkoak iruditu zitzaizkigun hasieratik: herrietako informazioa, erreportaia, kultura eta beste batzuk. Beti izaten dira ordea, zalantza puntu bat sortu duten atalak. Horregatik hain zuzen ere, galdetu diegu hautatuei atalik gustokoena zein duten. Hona hemen erantzunak herriz herri:



# Erreportaia

Zalantzarik gabe, herritarrek *Herri* atala dute gustokoen, hau da nork bere herriko informazioa, hurbilena, irakurtzea du gogoko. Eta gainera, AIURRIri kezka eragin dion beste zerbait ere erantzun dio jendeak: herrien artean, bizilagun kopurua ikusita, oreka ongi mantezen dugula uste dutenak %88 dira, gainerakoak herri txikiak baztertuak daudela pentsatzen dute. Jarraian hasieratik, bere berritasunagatik, nahikoa berezia iruditu zaigun atalaz egin dugu galdera: *Enpresa* atalaz hain zuzen ere. Irakurleek ez dute beste atal batzuekiko bezainbeste interesa agertu, baina %70ak behintzat, interesen bat agertu du: askori iruditu zaie ideia ona inguruko enpresa eta lantegiak ezagutzera.

## ALDIZKARIAREN EZAUGARRIAK

Irakurleek aldizkarian ikusten dituzten ezaugarriak buruz galdetuz honako irizpide hauek aipatu dizkiegu: egunerokotasuna, berritasuna, sakontasuna, iritzi aniztasuna, objetibotasuna eta abar. Egunerokotasuna, objetibotasuna eta iritzi aniztasuna izan dira sailkapenean hiru lehenengo lekuak bete dituzten irizpideak.

Objetibotasuna dela eta ez dela, iritzi aniztasuna dela eta ez dela, berez komunikabideek, are gehiago publikoek, joera politiko jakinik ez dutela izan behar argi dagoen arren, normalean liskarbide izan ohi den galdera egitera ere ausartu gara. %89ak uste du ez dugula joera politiko nabarmenik. Gainerakoek era

honetako erantzunak eman dizkigute: batzuek Euskal Herriaren aldekoak garela diote, beste batzuek euskararen aldekoak, abertzaleak beste batzuek, %1ak pentsatzen du gobernu taldeari besterik jaramon egiten ez dion udal aldizkaria garela, beste %1ak berriz, ezker abertzalearen alde agertzen garela dio.

## ALDIZKARI EUSKALTZALETZAT JOTZEN DUTE AIURRI

Azken orrialdeko komikiaz irakurleek pentsatzen zutenaz ez geneukan jakinmin txikiagoa. %70ak erantzun digu komikia gogo onez hartzen duela. Batzuei garrantzitsua iruditzen zaie gizarteko alde umoretsua lantzea, beste batzuek umorea eta aktualitatea elkartzea oso ideia ona iruditzen zaie, eta beste batzuek gatazka sozialen alde umoretsua gehiago landu beharra dagoela uste dute. Dena den, konturatu gara, konturatu ere, komiki liburuak ez daudela gure artean oso zabaldua, eta herritarrek ozta-ozta erreparatzen dietela egunkarietan eta bestelako aldizkarietan argitara ematen diren komiki laburrei.

### ITXURA GRAFIKOA

Gaur egun adituek diotenez, komunikabideetan informazioaren kalitatea bera baztertu gabe, alde grafikoari ematen zaio gero eta garrantzi handiagoa: nolabait esateko, *disinuak saltzen omen du*. Guk ere beti ongi lotu nahi izan ditugu aldizkariaren alde grafiko eta alde informatibo. Itxura grafikoari buruz, bada, galdetu diegu hautatuei, eta

## ALDIZKARIAREN EZAUGARRIAK


	GARAIBOAK	OBJETIBOTASUNA	IRITZI ANITZ
ASTEASU	%100	—	%67
BILLABONA	%64	%64	%47
ANDOAIN	%94	%67	%57
LARRAUL	%100	%85	—
ADUNA	%100	%85	%60
ZIZURKIL	%83	%75	%85

ASESORIA  
GESTORIA  
ASEGURUA

## ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

KALE BERRIA 22  
TELEFONOA 59 44 76 - 30 01 67 20140 ANDOAIN



**ZUBi**  
AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

%75ak erantzun digu itxura bikaina edo ona duela aldizkariak. Koloreak erakartzen ditu irakurleak gehien, eta batez ere azal koloretsu, bizi eta originalak. Bestalde, irakurleei ez zaie iruditzen irakurtzeko testu gehiegi ematen dugunik, argazkiez eta bes-telako osagarri grafikoez lagunduta, oreka ongi mantentzen dugula uste dute.

Aldizkariari ekonomikoki eusteko horren garrantzitsua den publizitate arloaz galdetu dugu, halaber. AIURRIIn agertzen den publizitate kopurua egokia dela pentsatzen du %75ak. %90ak erreparatzen die publizitate moduloei asko edo zerbait, eta %50ak ezagutu du denda edo merkatal etxe berrirren bat AIURRIko publizitateari esker. Gehienek uste dute gainera, publizitate moduloak deigarriak direla.

## MERKATAL ETXE BERRIAK EZAGUTU DITUZTE AIURRIREN BITARTEZ

Banaketa izan ohi da aldizkaria osatzen eta egituratzen hasten dene-tik ematen den azken urratsa. Galde-tutakoen artean %4ak baino ez digu esan arazoren bat edo beste izan due-

la, besteak beste, inoiz edo behin aldizkariak gutunontzietatik "des-agertu" egiten direla esan digute. Bestela ere, erredakzioan jaso izan dugu deiren bat edo beste helbidea oker zegoela esanez, edota harpidedun izanda aldizkaria jasotzen ez zutela esanez. Guri dagokigunez esan, huts egite guz-tiak adierazi orduko konpontzen saiatzen gara.

Bi urte beteko ditugu aurki, otsailean hain zuzen ere, Gabon jaiak igaroko direne-rako aldaketaren bat-zuk pentsatuta dauzka-gu dagoeneko: hain zuzen ere, orrialde berriak erantsi nahi dizkiogu aldizkariari, elkarriketa atala berreskuratuz, eta Andoain eta Billabona herriei informazio orrialde bana gehiago eskainiz. Poliki ari gara aurre-ra begira urratsak ematen, aldian al-diko sortzen diren eragozpenak gain-dituz. Eskerrik asko, etxeko atea ire-ki eta gure galderei erantzun dieten



Ostiraletan egiten dugu banaketa

guztiei. Aurrerantzean ere era batean edo bestean AIURRI jasotzen eta irakurtzen duten guztiakin harremanetan egotea nahiko genuke, orain arte bezala ideia berriak, kritikak eta gogoetak ezagutzera emanez.

## elkarriketak guztion laguntza behar du

Gero eta gehiago dira Euskal Herrian bakea lortzeko biderik egokiena elkarriketa eta akordioa direla uste dutenak.

3.000 bazkide baino gehiago dituelarik **elkarri** gizarte mugimendua lanean ari da egunero asmo hori egia bihur dadin.

**baina ez da nahikoa**

Elkarriketak guztion laguntza behar du. Zuk ere laguntzeko aukera duzu.

# elkarri

Moztu kupoi hau eta helbide honetara bidal ezazu: **elkarri**, Poeta Lizardi enparantza 2, tarteplanta. 20400 Tolosa

1.  Bai, **elkarri**ren laguntzailea izan nahi dut.  
Hileroko kuota (14 kuota urtean):  
 1.300 pzta  2.000 pzta  5.000 pzta  10.000 pzta  
Aportazio bakarra:  
 10.000 pzta  25.000 pzta  50.000 pzta  100.000 pzta  
(Laguntzaile guztiak **elkarri** eta **elkarrikasi** aldizkariak dohainik jasoko dituzte)

2.  Bai, **elkarri** (hilabetekaria) eta **elkarrikasi** (trimestrala) aldizkariak etxean jaso nahi ditut.  
Ordaintzeko era:  
 4.000 pzta (urtean behin)  1.000 pzta (3 hilabete behin)

3.  Bai, **elkarri** gizarte mugimenduari buruzko informazioa jaso nahi dut (kasu honetan ez itzazu bete bankuari buruzko datuak)

Izena..... Abizenak.....  
Helbidea..... Herria.....  
Herrialdea..... Posta kodea.....  
Telefonoa.....  
Banku edo aurrezki kutxa.....  
Sukurtsal helbidea.....  
Sukurtsal zkia..... Kontu zenbakia.....

## SOARRAIN AUZOKO ESKOLA LARRAULEN. 1959-60.



Larraulen dagoen Soarrain auzoan garai batean izan zen eskola, Azpeitiatarren Soarrain Aundi baserrian, hain zuzen ere. Garai batean orain baino baserri gehiago zeuden inguru hartan, eta Larrauldik zein Asteasutik oso urruti zeudenez, bertan jasotzen zuten eskola auzoko neska-mutilek, bai Larraulgoek bai Asteasuakoe. Zizurkilgo Gloria Astiasaran arduratzen zen klaseak emateaz, adin beretsuko ikasleei oinarrizko lekzioak emanez: irakurtzen eta idazten ikasi, aritmetika pixka bat eta historia apur bat.

Soarrain baserria erre egin zen handik urte batzuetara, eta klaseak bertan behera utzi behar izan zituzten. Geroztik ez da auzoan eskolarik izan. Gaur egun auzokideak ere asko gutxitu dira, baserri asko hustu egin baitira.

### *Ezkerretik eskuinera aurrean:*

Jose Mari Usandizaga larrauldarra, Juanita Azpeitia larrauldarra, Maria Jesus Iturbe asteasuarra, Izaskun Urruzola asteasuarra, Asintxio Iturbe asteasuarra, Maria Jesus Urruzola asteasuarra eta Jose Ignazio Azpeitia larrauldarra.

### *Ezkerretik eskuinera atzean:*


Jose Migel Usandizaga larrauldarra, **Peio Iturbe asteasuarra**, Gloria Astiasaran maistra zizurkildarra, Pedro Mari Iturbe asteasuarra eta Maria Jesus Kortajarena larrauldarra.

Argazkia **Peio Iturberena** da, eta berak lagundu digu Antton Amonarriz larrauldarren bitartez argazkian agertzen diren neska-mutilen izenak biltzen.

**07SAB9**

Etxebizitzen salerosketa

Kale berria, 58 ☎ 69 08 94 BILLABONA



• **kutxa fundazioa**  
• **fundación kutxa**

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**ADOLFO ANDRADE**  
**ANDOAINGO HOGAR EXTREMEÑO**  
**ELKARTEKO LEHENDAKARIA**  
**BILLABONARRA; 42 URTE;**  
**LANGILEA**



- *Miajón de los Castúos deitzen da zuen elkartea? Zer esan nahi du?*

- *Miajón etxe esateko bertako hitz extremeñoa da, eta castúo-a berriz, bemengo baserritarrarekin pareka daiteke.*

- *Noiz sortu zen elkartea?*

- *1976. urtean sortu zen eta gaur egun 215 bazkide gara, extremeñoak gehienak, hala ere galiziar bat edo beste ere biltzen zaigu.*

- *Zein da zuen helburua?*

- *Elkarte hau bazkideentzat beren bigarren etxea bezala da, bemen jaioterriari buruz hitz egiten dute, oroitzapenak berpizten dituzte, eta egunerokotasunari ere jarraitzen diogu, bango bi egunkari jasotzen baititugu. Argi utzi nahi dut, elkartea ez dela afariak egiteko txokoa soil-soilik; elkarte kulturala da lehenengo eta behin.*

- *Ze ekintza kultural egiten dituzue?*

- *Maiatzan antolatzen dugun aste kulturala izan obi da garrantzitsuena. Zabarren Astea ere antolatzen dugu, futbol lehiaketa ari gara egun hauetan egiten, San Martin egunean zeria akabatzen dugu eta abar. Gainera, dantza talde baikaina daukagu, Espainiako txapelduna, baita akordeoi taldea ere, eta abesbatza.*

- *Extremadura kalean daukazue egoitza gainera?*

- *Bai, hala da. Lehen beste izen bat zeukan. Baina orain dela urte batzuk Udalarai aldatzeko eskaria egin genion eta onartu egin zuen. Kale bonetan extremeño mordoa bizi da.*

- *Noiz etorri zinen Euskal Herrira?*

- *1976. urtean. Handik lau urtera Billabonara joan nintzen.*


- *Gogorra al da jaioterri uztea?*

- *Gure lurra nabiko pobrea da eta arrazoi ekonomikoak bultzatuta, daukazun dena bertan utzita alde egitea gogorra da oso. Arrotz eta bakarrik sentitzen zara hasieran. Hala ere, bemengo jendeak ongi hartu gaitu, eta ez dugu aparteko arazorik izan. Oso gustora sentitzen gara gaur egun Euskal Herrian, erabat integratuta. Gure seme-alabak euskaldunak dira, gainera.*

- *Jende gazteak jotzen al du elkartera?*

- *Bai, asko. Jende gazte asko dago gure artean lanean.*

## PERTSONAIA EZKUTUA



**Pertsonaia ezkutu** izeneko atal honetan saio berri bati ekin-  
 gu diogu, hau da per-  
 tsonaia berria eta sari  
 berria, baina ohiko le-  
 hiaketa. Oraingo hon-  
 etan **Billabonako**  
**Basajaun liburuden-**  
**dak** eskaini digu opa-  
 ria, **1996. urterako**  
**agenda paregabea,**  
**ekologikoa,** urte be-  
 rria asmo eta egiteko  
 berriez bete dezazun.

1996

Pertsonaia berriari dago-  
 kionez, aurrekoak bezain  
 ospetsua eta ezaguna dela  
 aurreratzen dizuegu. Bada-  
 kizue, lehiaketan parte har-  
 tu nahi baduzue, bidal eza-  
 zue gutuna Andoaingo Dok-  
 tor Huizi kaleko 15. zenba-  
 kira. Eta zorte on!



TESTU LIBURUAK  
 (O.H.O. · B.B.B. · L.H. · e.a)

ESKOLARAKO  
 OSAGARRIAK

JOKO  
 DIDAKTIKOAK

IRAKURKETARAKO  
 LIBURUAK

ALDIZKARIAK

PAPERDENDA

KALE NAGUSIA, 29 ☎ 69 16 51

**B I L L A B O N A**



**ELEKTRATRESNAK**  
**SUKALDERAKO ALTZARIAK**



Arteta kalea, 1 eta 3  
 ☎ 59 12 26 - Faxe 30 03 45  
**ANDOAIN**



**LIBURUDENDA**  
**PAPERDENDA**

KALE NAGUSIA, 20 - ☎ 59 16 57 -  
**ANDOAIN**

# Agenda

## IKASTAROAK

### ASTEASU

**Txotxongiloak egiteko ikastaroa azaroan eta abenduan:** asteazkeno arratsaldean 18.00-20.00 orduetan Kultur Etxean. Antolatzailea: Larramendi Kultur Bazkuna eta Udala.

## KANTALDIAK

### BILLABONA

#### Abenduak 12:

**Imanolen kantaldia** Gurea zinema aretoan 19.00etan Billabonako eskalategiak antolatuta.

## HITZALDIAK

### ANDOAIN

#### Abenduak 13:

**Buruntzako aztarnategiari** buruzko hitzaldia eta ikusentzunezko saioa Kultur Etxean 19.30etan.

## BESTE

### ANDOAIN

#### Abenduak 3:

**Takolo, Pirrux eta Porrotx pailazoen** emanaldia Allurralde kiroldegian 18.00etan.

# Zure hizpidea

Azkenaldi honetan "Euskal Herrian Euskaraz" taldeak *euskararen alde* burutzen duen kanpainak erabat txundituta gauzka. Gure harridurak, gainera, zenbait zalantza planteatzera eramaitu gaitu: benetan al da "euskararen aldeko kanpaina bat"? Are gehiago: benetan al da E.H.E. bere eginkizuna Euskal Herri osoan euskararen normalakuntza, erabilera eta sustapena helburu dituen talde bateratu bat, ala bere barnean, ustezko itxuren azpian, beste helburu, jokabide eta ekinbide batzuk ere badira?

Eman dezagun talde hori badela Andoainen, talde bateratua dela eta bere helburua gorago aipatutakoa dela: euskararen aldekoa alegia. Eman dezagun ere, Andoainen euskara erabili eta ikastearen aldeko kanpaina bat "diseinatu" dutela. Eman dezagun, azkenik, kanpaina hori burutu eta emaitzak lortu dituela. Esango al digu E.H.E.k zeintzu diren kanpainaren ondoriok? Zeintzu, lortu diren helburuak? Irrikitzen gaude jakiteko eta horregatik (gaurko egunera arte, arrazoi ezberdinak medio, elkarrekin egoteko aukerarik izan ez badugu ere) jarri gara talde horren arduradunetako batekin harremanetan. Ez gara txantxetan ari: jakin nahi dugu zer lortu ote duten.

Azkenaldi honetan genion ze, izan ere, "txikizioaren metodologia" hartu du E.H.E.k jokabide eta bestela, Donostia, Bergara, Arrasate edo Euskal Herriko errepidetako "emaitzak" ikusi besterik ez dago. Gure ustez, honez gero, euskararen eta euskaltzaletasuna-

ren munduan dabilenak badaki zertaz ari garen. Baina gatozen berriro Andoaingo kasura: eliza, etxe, pilotaleku, egoitza, erakunde eta abarretako horma eta inguruak margotu ditu E.H.E.k "bere" (edo beretzat jabetu direnen) ikurrarekin eta EUSKARAZ! esan-aldarrikatzen duen lelo batekin.

Ez genuke hemen esan nahi Andoainen euskaren alde diharduten beste talde eta erakundeen plangintza eta egitasmoek gauza asko, gutxi ala bate-re lortu ote dutenik; baina garbi dago kanpaina hori ez dela mehatxu bezala baino ulertzen: euskaraz ez dakiena sentituko da mehatxatu, dakienak berri-ri, bortizki begiratuko die aipatu leloei eta azkenik, bakoitzak ordainduko du bere poltsikotik, horma horiek guztiak garbitu egin beharko baitira. Eta zer lortzeko? Esan diezagutela beraiek besteei eskatzen dieten eran: kopuru, portzentai eta adibideekin. Eta emaitzak onak baldin badira, denok erosiko ditugu pintura poteak.

Baina zoritxarrez, eta ez dugu uste horren gaizki ibiliko garenik, "kanpaina" horrek aldrebeskoa lortuko du. Lortuko du hain zuzen ere, bazter guztiak nazkatzea, lortuko du euskararen beraren irudia narratzea, lortuko du euskara ikasten ari direnak zapuztea eta azkenean, lortuko du euskarak lis-karra besterik sortzen ez duela esaten dutenek arrazoi izatea.

Baina eta hori balitz helburua? Ba orduan, aurrera mutilak!

*Andoaingo Eusko Alkartasunak*

Santo Tomas egunean postuak jartzeko dirulaguntzarako deialdia: gehienez 18.000 pezeta emango da taldeko; lau postu baimenduko dira gehienez; eskaerak aurkezteko epea abenduaren 13-14an amaituko da.

## LA SALLE BERROZPEREN 50. URTEMUGA:

### KIROL ASTEA

#### Abenduak 14:

**Kirolari buruzko mahai-inguru.** Hizlariak: Errealeko bizpahiru jokalarik (Imaz eta Loren), Maria Luisa Irizar korrikalari andoainarra, Euskalduna futbol taldeko Josetxo Guruzteaga, ODEAko Manolo Alaña, La Salleko futbol txapelketen antolatzaile izan den Jimi Brosa eta Etxeberria pilotarria. Hizlaria arratsaldeko zazpitan izango da ikastetxean bertan.

#### Abenduak 17:

Aurtengo profesional mailan bakarra izango den **nazioarteko ziklo kros lasterketa** Andoainen.

## BILLABONA

### HERRI OLINPIADAK

#### Abenduak 2:

**Mendiko txirrindularitza proba bazkalostean.** Taldeka egingo da proba eta bostgarren denborak puntuatuko du.

## ADUNA

#### Abenduak 15:

**Berto afaria** herriko tabernan Jokin Sorozabal eta Mañukortarekin gaueko 21.00etan

## ZINEMA

#### Abenduak 1-2-3-4:

**"LA FLOR DE MI SECRETO"**

#### Abenduak 8-9-10-11:

**"JONNY MDMOMIC. BRAVE-HEART"**

#### Abenduak 15-16-17-18:

**"ALERTA MÁXIMA"**

#### Abenduak 22-23-24-25:

**"EL DÍA DE LA BESTIA"**

#### Abenduak 29-30-31-1:

**"LOS PUENTES DE MADISSON"**

### HAURRENTZAKO

### EMANALDIAK:

#### Abenduak 3:

**"ASTERIX EN AMÉRICA"**

#### Abenduak 10:


**"LA TRIBU DE LOS BRADY"**

#### Abenduak 17:


**"PAGE MASTER"**

# *saiakera bilduma dagoeneko salgai*

- 1** *Manuel Larramendi: bizitza eta obra*
- 2** *Gerra Zibila andoaindarren begietatik*



2.000 pta




1.500 pta

Zure liburudendan eros ditzakezu  
*Erne bazkideak: Bazkunean bertan eros ditzakezue!*



KULTUR  
BAZKUNAREN  
ARGITALPENAK



*ogi berezi eta  
artesanuak  
etxerainoko  
zerbitzua*

**OGI ZURI**

OKINDEGIA, S.L.

Lizarra-etxea, 32 / Elizmendi auzoa.  
20159 ASTEASU / ☎ 693294 - 691896

**OGI · GOXO**



- TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK
- TEILAK-ZIGARRILOAK
- HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - ☎ 693294 - BILLABONA

**Eiztu**  
garraioak



**EGUNEROKO ZERBITZUA  
PAKETEAK  
DOKUMENTUAK**

☎ 908 - 77 60 10  
☎ 69 39 18

**DONOSTIALDEA  
TOLOSALDEA  
GOIERRI ALDEA**

**Abeletxe**  
*a t e r p e a*



*lasaitasuna eta aktibitatea*



Zarate bidea Tel.: (943) 69 39 83  
20159 Zizurkil (Gipuzkoa)

**Boutique**  
**ARAGAR**

Gizonezko nahiz  
emakumeentzako jantziak



**PREZIO  
BEREZIAK**

Elizondo plaza 1 - ☎ 59 23 09 - ANDOAIN